# Minbiziaren Aurkako borroka



Arabako AECCk 1991tik dihardu lanean, gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko helburuz, gaixotasunaren etapa guztietan artatuz, baita heriotzaren ondoren ere. Era berean, jarduera ugari garatzen ditu prebentzioa sustatzeko asmoz, bizimodu osasungarriak bultzatuz, baita herritarrak informatuz eta kontzientziatuz ere.

Zeregin horretan, Vital Fundazioaren laguntza du Araban, lankidetza estuan aritzen baitira, eta horri esker, hain zuzen ere, eusten dio AECC erakundeak Laguntza Siko-sozialerako Programari. Gaixoei eta haien senideei arreta pertsonalizatua ematea da ekimen horren helburua, bai etxean bertan, bai elkartearen egoitzan, baita Gazalbideko osasun zentroan ere. Halaber, boluntariotza ere bultzatzen da Txagorritxuko Ospitaleko minbiziaren aurkako unitate klinikoetan.

Bide beretik, Vital Fundazioak komunikazio kanpainetan ere laguntzen du, kartelen eta foiletoen edizioan, baita urtean zehar garatuko diren beste zenbait jardueratan ere.

Informazio gehiago www.aecc.es webgunean.

**Fundación Vital Fundazioa**
Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz
945 776 858
info@fundacionvital.eus